



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2019ko UZTAILAREN 4ean EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2019ko uztailaren 4an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Iñaki Xabier Irazabalbeitia Fernandez

ZINEGOTZIAK : Guillermo Jesus Otegi Zubillaga  
Shrabani Aranzabe Pita  
Unai Sorarrain Urruzola  
Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola

Bere ezin etorria azaltzen du: Concepcion Soria Legua

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. Alkatetza ebazpenen berri ematea.
2. Fakturak eta ordainketak.
3. 2018ko Kontu Orokorraren behin betiko onespena, hala bada.
4. 2019 Oporrak bakean programarako diru-laguntzaren eta dagokion hitzarmenaren onespeneren azterketa, hala bada.
5. Beste batzuk.
6. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

### **LEHEN PUNTUA**

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 91/2019tik 95/2019ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **BIGARREN PUNTUA**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

VIDA CAIXA S.A.U.	94,30
VIDA CAIXA S.A.U.	829,43
EBA ERKIZIA	1.813,92
KEY-LAN	120,96
SOLRED	65,24
ARGITU	223,49
LAU HAIZETARA	7.538,60
CARPINTERIA ATARI	843,85
CUALTIS	751,04
CALPARSORO INDUSTRIAL	74,71
BERRI LANTEGIA	27,00
URAK	60,50
ACSOL	102,87
ACSOL	226,89
IPUI TANTAI	257,13
MERTXE AIZPURUA	150,00
DIMARPE	870,68
ANTONIO ELOSEGUI	82,80
MOVISTAR	168,87
MOVISTAR	38,91
MOVISTAR	75,37
VIDA CAIXA S.A.U	316,15
IBERDROLA	41,08
CORREOS	10,41
EUSKAL-HOTZ	105,27
EUSKAL-HOTZ	176,66
LYRECO	195,10
TOLOMENDI	163,95
EDURNE BENGOA	188,66
EUSKALTEL	106,41
CARPARSORO INDUSTRIAL	60,34
CALPARSORO INDUSTRIAL	35,96
BULEGOAK	246,39
ZURIARRAIN ITURGINTZA	291,73



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

ZURIARRAIN ITURGINTZA	883,91
ANTONIO ELOSEGUI	51,93
OBBTKN	206,70
CALPARSORO INDUSTRIAL	44,90
EBA ERKIZIA	1.522,59
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	281,25
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	281,25
ZUENTZAT ARTE ESKOLA	150,00

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **19.777,20** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **HIRUGARREN PUNTUA**

#### **2018KO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundeen Aurrekontuari buruzkoak, 62 eta hurrengo artikuluetan xedatutakoari jarraituz, Kontu Orokorra egin dela, ekitaldiko aurrekontuari buruzkoa, aparteko aurrekontuari nahiz ondasunei eta diruzaintzari buruzko operazio guztien adierazgarri dena. Kontuetako Batzorde Bereziaren txostena lortu ondoren, jendaurrean egoteko tramitean jarri dela, 2019 urteko ekainaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuz, erreklamaziorik, konponbiderik edo oharpenik aurkeztu ez delarik.

Ikusirik espediente osoa Udaltzarraren ezagupenean jarri dela.

Gaia azterturik bertaratuek aho batez ondorengoa,

#### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Udaltzarreko Lehendakariak emandako 2018 ekitaldiko Kontu Orokorra onestea.

BIGARRENA.- 2018ko ekitaldiko Kontu Orokorraren espedientearen berri Kontuetako Hauzitegiari ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **OPORRAK BAKEAN PROGRAMARAKO DIRU-LAGUNTZAREN ETA DAGOKION HITZARMENAREN ONESPENAREN AZTERKETA, HALA BADA**



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik, aurten ere Tolosako Udalak aurten ere Oporrak Bakean programa antolatu duela, programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin.

Ikusirik, Alkizako Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.

Ikusirik, programa hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu dela Tolosako Udalaren eta Alkizako Udalaren artean sinatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

**LEHENA:** Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespena ematea.

**BIGARRENA:** Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programarako, 480.230.00.01 kontu sailean, 1.900,00 euro aurrikusten dituela, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea.

**HIRUGARRENA:** Alkizako Udalak eta Tolosako Udalak Oporrak bakean programa aurrera eramateko prestatutako hitzarmena onestea. Inaki Irazabalbeitia Fernandez, Alkizako Alkatea ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

#### **BOSTGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

Ez dira aurkezten.

#### **SEIGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

*Ez dira aurkezten*

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 20.07 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)